


Aniztasuna ez da kudeatzen



HIRUKI LARROXA

Aniztasuna hitza edozein hezkuntza testuingurutan entzuten den garaian bizi gara. Kanpaina instituzionaletan, plan estrategikoetan eta ikastetxeetako korridoreetako kartel koloretsuetan aise agertzen da. Baina *aniztasuna* zenbat eta gehiago erabili, orduan eta arrisku handiagoa dago kontzeptua bera husteko. *Aniztasuna*, beraz, hitz eroso bihurtu da. Eta hitz bat eroso bihurtzen denean, ez dio botereari deseroso sentiarazten.

Egun, hezkuntza-sistemak, bere gida, protokolo eta txostenekin, disidentzia kategoriatik kudeagarri bihurtzeko joera du. Hizkuntza tekniko bat sortuz eta lehen mugak gainditzen zituena sailkatuz, arautuz eta normalizatuz. Alegia, hasiera batean subertsio politikoa zena (gorputz eta identitate ez-normatiboak) administrazio-prozedura bihurtu da.

Arazoa ez da inklusioa, bere horretan baztertua den esparruaren barruan inklusioa sartzea baizik. Izan ere, inklusioa hegemonia edo normaltasuna mugitu gabe praktikatzeko ari gara. Eta, ondorioz, aniztasuna arau berdinen pean jarduten duen dekorazio instituzional bihurtzen ari da, ez aldaketarako tresna.

Kudeaketaren lengoaiak (edo "gure ikastetxean aniztasuna kudeatzen dugu" bezalako esaldiek) egoeren gaineko se-

gurtasuna, kontrola eta eraginkortasuna transmititzen ditu. Baina hezkuntza ez da kudeaketa-adierazleen arabera neuritzen, esperientzien arabera baizik. Hain zuzen, hunkitzen, aztoratzen eta errealtatea beste era batera begiratzera gonbidatzen gaituzten esperientziak dira. Eta disidentziak (aniztasunetik harago) zirrara horretatik irakasten du, sistemak bere mugez gainetik prozesatzen ez dakiena erakutsiz.

Disidentzia ez da eroso, justuki, logika (eroso) askotatik ihes egiten delako. Horregatik, aniztasuna lantzea ez da desberdina dena sistemaren barruan integratzea, baizik eta sistema desberdintasunetik birpentsatzea. Horretan datza bere ahalmen pedagogikoa.

Hortaz, pedagogia feministek ez dute aniztasuna kudeatu nahi, aniztasunetik ikasi baizik. Normaltasuna arrakalatzen duena entzutea, ez bakarrik normaltasuna egokitzen dena. Alegia, ezarritakoa desordenatzen duten gorputzei, afektuei eta desirari lekua ematea.

Beraz, mesedez, utz dezagun alde batera kudeaketaren enpresa-lengoaia bizitzaz, desiraz edo harremanez ari garenean. Aniztasuna ez delako kudeatzen, bizi eta gorpuztu egiten delako. Eta aniztasuna bizitzea da, era berean, i(r)kasteko modurik erradikalena. ●

Egiazko gezurrak

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Batzuetan, txakurtxo tematiaren pare, sarean usnaka gabiltza, mundua nola dabilen ikasi eta ikusi nahian. Bat-batean albiste potoloek burumuina emokatzen digute: publizitate hutsak dira batzuk eta besteak egia itxurako gezur borobilak. Gertatzen da berri horiek ziztuan sinesten ditugula eta handik gutxira damutzen garela hain inozenteak izateagatik. Sareko behako bakoitzak sistema anbiguo horren konplize egiten gaitu. Eta oraino, nik ez dut berri horiek partekatzeke joerarik.

Adimen Artifiziala erabiltzen dute gero eta gehiago, notizia sinestezine-

nak plazaratzeko orduan, jendeen atenzioa gatibatzeko. Lodiago eta hobeago. Gaurkoan, egia ez da errealtatean errotzen, errealtateak jada ez baitu baliarik, beldur zinezkoa ala asmatuzkoa barreiatzeak baizik. Orainarekiko eta etorkizunerako izu probokatu horrek itsuki kontsumitzera bultzatzen gaitu, gurina, azukrea edo plastikoa, guziak, bihotz-gogo gozagarri bilakatzen direla azken finean.

Maite dugu istorioak entzutea, argi eta garbi, ahalik irrealenak, guharen nor-tasuna uherregia eta zalantza-akorregia bihurtzen ari den honetan. ●